

# ARTEA ETA IKERKETA. MONTEHERMOSO 2010

## PROIEKTUEN EKOIZPENA

Deialdiaren helburua, produkzioan edo produkzio aurreko fasean aurkitzen diren, gehienez, zortzi proiektu artistikoren aukeraketa egitea da 2011eko bigarren lau hilabeteetan, Montehermoso Kulturuneak urtero antolatzen duen egitarauaren barnean.

### 1. Parte hartzaileak:

Zeinahi herritartasun duten egileek oro aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, banaka nahiz taldeka, inongo adin mugarik gabe. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

### 2. Proiektuak:

Proiektu argitaragabe bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, ekoizpen-aldian dagoena, edo laguntzak hartzen duen denbora tartean ekoiztekoa dena.

Proiektuak hautatzeko, alderatu egingo dira aurkezten diren proposamenak, balioespen irizpide hauen aintzat hartuta:

- a) Proiektuaren interesa eta kalitatea.
- b) Proiektuaren bideragarritasuna, aurkeztutako dosierra eta dokumentazioa, gauzatzeko egutegia, giza taldea eta diru zenbatekoa kontuan hartuz.
- c) Proiektuaren egilearen edo egileen prestakuntza eta ibilbide profesionala.

Proiektuak hautatzeaz arduratzen den batzordeak finkatuko ditu atal horietako bakoitzean puntuak emateko irizpideak. Hiru ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaiok direnek eta bertan bizi direnek izango dute lehentasuna. Proiektuak ez badira behar horietara egokitzen, hautatze batzordeak eman gabe utzi ahal izango ditu diru-laguntzak, guztiak edo parte bat.

### 3. Laguntzak:

Proiektu bakoitzeko gehienezko diru-kopurua 10.000 eurokoa izango da, honela banatuta:

7.000€: gehienezko diru kopurua proiektuaren ekoizpenerako. Honako hau sartuko da:

- Obraren ekoizpenak sortutako gastuak.
- Proiektuaren egilearen bidaia eta egonaldi gastuak.
- Zentroaren azpiegitura dela eta bere gain hartu ezin ditzakeen, erakusketaren muntaiak sortutako gastuak.

3.000€: obra ekoizteagatiko ordainsari eta egile eskubide gisa

Montehermoso kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak gehituko zaizkie partida horiei. Kulturuneari atxikita ez dauden giza-baliabideak eta tresneria teknikoa ekonomikoki balioetsiko dira, eta diru-hornidura gisa kontabilizatuko laguntzaren barruan.

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gasteizko Udaleko Kultura Sailaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu kreditutik ordainduko dira. Hain zuzen ere, sail horren 2010. urteko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da deialdia.

Aipatutako diru-kopuruak zergak barne, eta guztia PFEZren atxikipenaren kalterik gabe, egokia bada egingo da. Kopuru hauen diru sarrera Gasteizko Udalaren administrazio prozeduraren arabera egingo dira

#### 4. Epea

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek helbide honetara bidali beharko dute eskabidea:

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea  
Cl. Fray Zacarías Martínez 2 – 01001 Vitoria-Gasteiz

Hauxe argi eta garbi adierazita:

ARTEA ETA IKERKETA. MONTEHERMOSO 2010: PROIEKTUEN EKOIZPENA

2010eko martxoaren 31n bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea. Entrega-epe bezala organismo ofizial batetan erregistratutakoa hartuko da, posta-bulegoa edo Montehermoso Kulturunea bera esaterako.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa postaz itzuliko da. Hautatutako proiektuen dosierrak eta dokumentazio osagarria, berriz, Montehermoso Kulturunearenak izatera pasatuko dira.

#### 5. Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabide orria, behar bezala beteta

Proiektu egilearen edo egileen nortasun-agiriaren –edo baliokidearen– fotokopia  
Curriculuma (gehienez 4.000 karaktere)

Aurreko lanen dossier laburra.

Proiektuaren dosierra, hauexek biltzen dituena:

Izenburua eta ideiarekin azalpena (gehienez 5.000 karaktere).

Proiektuaren zirriborro eta irudiak, jpg formatuan (gutxienezko bereizmena: 72 ppp)

Proiektuaren egungo egoera

Behar teknikoak

Gauzatze egutegia

Gutxi gorabeherako aurrekontu xehatua –finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztu beharko dira.

Aurkezten diren eskabideetan eskatutako dokumenturen bat falta denean, hauek baliogabetuko dira.

#### 6. Proiektuak hautatzeko batzordea:

Prozesuko fase guztien gardentasuna bermatze aldera, gauzatuko diren proiektuak hautatzearen ardura bere gain hartuko duen bitariko batzorde bat aukeratuko du Montehermoso kulturuneak.

Honako hauek osatuko dute hautatze batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloko zinegotzi ordezkaria edo hark ordezko izendatzen duena.

Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu, kulturuneak hautatuak.

Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat arituko da idazkari lanetan – iritzia eman ahal izango du, baina ez botorik

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

#### 7.- Proiektuen zabalkundea:

Lan prozesuen eta obra amaituen zabalkundea sustatzeko konpromisoa hartzen du bere gain Montehermoso kulturuneak –egileekin adostuko du horretarako modurik egokiena– Horrenbestez, erreproduzio eskubidea eta komunikazio publikorako eskubidea laga beharko dizkiote artistek. Halaber, proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain. Proiektuen ondorioz sortzen den materiala erreproduzitu eta zabalkundea emateko baimena emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain hautatutako proiektuen egileek, 2010eko laguntza deialdiaren zabalkunderako ekintzak bideratzerik izan dadin, eta sortutako dokumentazio guztia kulturuneko artxiboan jasoko da. Hautatzen diren proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua gauzatzeaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten. Lagapen-aldia bi urtekoa izango da, ebazpenaren datatik kontatuta. Estatu osorako eta mundu osorako balioko du eskubide lagapenak. Montehermoso kulturuneak kontratu bat sinatuko du egileetako bakoitzarekin, eta bertan zehaztuko dira zerbitzuak eta harremanaren baldintzak.

#### 8. Gauzatzea:

Montehermoso kulturuneko lantalde teknikoak koordinatu eta gainbegiratuko ditu lan guztiak. Halaber, proiektuen bilakaera ebaluatzeaz arduratuko da.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, kulturuneko lantalde teknikoak txostena egin ondoren.

#### 9. Onuradunen betebeharrak:

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

a) Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkieten arauak betetzekoa.

b) Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzekoa –bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli.

c) Lana, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakutsi arte.

d) Proiektuaren publizitatean –Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere– “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” eslogana eta Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzekoa.

e) “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” programak babesle edo laguntzailerik izanez gero, hautatutako proiektuak direla eta egiten den publizitatean horien logotipoak jarri beharko dira, babesle edo laguntzaile gisa ager daitezen.

- f) Hautatutako parte hartzaileek idatziz berretsi beharko dute onespena. Laguntza onartzen dela baieztatu ondoren, Montehermoso kulturuneak hautatutakoarekin hitz egingo du kontratua sinatu eta kontratua betetzeko berariazko klausulak ezartzeko.
- g) Proiektua 2010 eta 2011ko maiatza bitartean (barne) garatzea.
- h) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematea.
- i) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.
- j) Kostuak aurkeztutako aurrekontuaren eta Montehermoso kulturuneak adierazitako irizpideei jarraiki justifikatzea.

#### 10. Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Kultura Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da diru-laguntza bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

## KOMISARITZARAKO PROIEKTUA

Deialdiaren helburua komisariatutako proiektu baten aukeraketa eta produkzioa da ondoren, 2011ko bigarren lau hilabeteetan, Montehermoso Kulturgunean aurkezteko, urtero antolatzen den egitarauaren barnean.

#### 1. Parte hartzaileak:

Zeinahi herritartasun duten egileek oro aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, banaka nahiz taldeka, inongo adin mugarik gabe. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

#### 2. Proiektuak:

Proiektu argitaragabe bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, ekoizpen-aldian dagoena, edo laguntzak hartzen duen denbora tartean ekoiztekoa dena.

Proiektuak hautatzeko, alderatu egingo dira aurkeztu diren proposamenak, balioespen irizpide hauen aintzat hartuta:

- a) Proiektuaren interesa eta kalitatea.
- b) Proiektuaren bideragarritasuna, aurkeztutako dosierra eta dokumentazioa, gauzatzeko egutegia, giza taldea eta diru zenbatekoa kontuan hartuz.
- c) Proiektuaren egilearen edo egileen prestakuntza eta ibilbide profesionala.
- d) Kulturunearen helburuetako bat berdintasun politikak aplikatzea izaki, hori izango da laguntza emateko orduan aintzat hartuko den alderdietako bat.

Proiektuak hautatzeaz arduratzen den batzordeak finkatuko ditu atal horietako bakoitzean puntuak emateko irizpideak. Lau ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaiok direnek eta bertan

bizi direnek izango dute lehenetasuna. Proiektuak ez badira behar horietara egokitzen, hautatze batzordeak eman gabe utzi ahal izango ditu diru-laguntzak, guztiak edo parte bat.

### 3. Laguntzak:

Erakusketa proiektua gauzatzeko gehienezko diru-kopurua 21.000 eurokoa izango da, honela banatuta:

15.000€: gehienezko diru kopurua proiektuaren ekoizpenerako. Honako hau sartuko da:

- Obraren ekoizpenak sortutako gastuak
- Aseguru gastuak.
- Obra eta materialak bueltatzeko garraio gastuak.
- Aukeratutako artista eta komisarioen bidaia eta egonaldi gastuak.
- Erakusketan parte hartu duten artisten egile-eskubideek sortutako gastuak.
- Zentroaren azpiegitura dela eta bere gain hartu ezin ditzakeen, erakusketaren muntaiak sortutako gastuak.

6000€: antolatzaile lanen ordainsari eta egile eskubide gisa.

Montehermoso kulturuneko azpiegiturak, tresneria teknikoa, aholkularitza eta giza baliabideak gehituko zaizkie partida horiei. Kulturuneari atxikita ez dauden giza-baliabideak eta tresneria teknikoa ekonomikoki balioetsiko dira, eta diru-hornidura gisa kontabilizatuko laguntzaren barruan.

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gasteizko Udaleko Kultura Sailaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu kreditutik ordainduko dira. Hain zuzen ere, sail horren 2010. urteko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da deialdia.

Aipatutako diru-kopuruak zergak barne, eta guztia PFEZren atxikpenaren kalterik gabe, egokia bada egingo da. Kopuru hauen diru sarrera Gasteizko Udalaren administrazio prozeduraren arabera egingo dira

### 4. Epea

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek helbide honetara bidali beharko dute eskabidea:

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea  
Cl. Fray Zacarías Martínez 2 – 01001 Vitoria-Gasteiz

Hauxe argi eta garbi adierazita:

ARTEA ETA IKERKETA. MONTEHERMOSO 2010: KOMISARITZARAKO PROIEKTUA

2010e martxoaren 31n bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea. Entrega-epe bezala organismo ofizial batetan erregistratutakoa hartuko da, posta-bulegoa edo Montehermoso Kulturunea bera esaterako.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa postaz itzuliko da. Hautatutako proiektuen dosierrak eta dokumentazio osagarria, berriz, Montehermoso Kulturunearenak izatera pasatuko dira.

### 5. Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabide orria, behar bezala beteta

Proiektu egilearen edo egileen nortasun-agiriaren –edo baliokidearen– fotokopia Curriculum (gehienez 4.000 karaktere)

Aurreko lanen dosier laburra.

Proiektuaren dosierra, hauexek biltzen dituena:

Izenburua eta ideiarekin azalpena (gehienez 7.000 karaktere).

Erakusketan parte hartuko duten artisten zerrenda (eta horien curriculum vitae labur bilduak)

Obren fitxa teknikoa eta obraren irudiak (ekoitzita badaude)

Proiektuaren zirriborro eta irudiak, jpg formatuan (gutxienezko bereizmena: 72 ppp)

Proiektuaren egungo egoera

Behar teknikoak

Guzatze egutegia

Gutxi gorabeherako aurrekontu xehatua –finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztu beharko dira.

Aurkezten diren eskabideetan eskatutako dokumenturen bat falta denean, hauek baliogabetuko dira.

6. Proiektuak hautatzeko batzordea:

Prozesuko fase guztien gardentasuna bermatze aldera, guzatzeko diren proiektuak hautatzearen ardura bere gain hartuko duen bitariko batzorde bat aukeratuko du Montehermoso kulturuneak.

Honako hauek osatuko dute hautatze batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloko zinegotzi ordezkaria edo hark ordezkari izendatzen duena.

Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu, kulturuneak hautatuak.

Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat arituko da idazkari lanetan –iritzia eman ahal izango du, baina ez botorik

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

7.- Proiektuen zabalkundea:

Lan prozesuen eta obra amaituen zabalkundea sustatzeko konpromisoa hartzen du bere gain Montehermoso kulturuneak –egileekin adostuko du horretarako modurik egokiena–. Horrenbestez, erreproduktzio eskubidea eta komunikazio publikorako eskubidea laga beharko dizkiote artistek. Halaber, proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain. Proiektuen ondorioz sortzen den materiala erreproduzitu eta zabalkundea emateko baimena emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain hautatutako proiektuen egileek, 2010eko laguntza deialdiaren zabalkunderako ekintzak bideratzerik izan dadin, eta sortutako dokumentazio guztia kulturuneko artxiboan jasoko da. Hautatzen diren proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua guzatzetaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten. Lagapen-aldia bi urtekoa izango da, ebazpenaren datatik kontatuta. Estatu osorako eta mundu osorako balioko du eskubide lagapenak.

Montehermoso kulturuneak kontratu bat sinatuko du egileetako bakoitzarekin, eta bertan zehaztuko dira zerbitzuak eta harremanaren baldintzak.

#### 8. -Gauzatzea:

Montehermoso kulturuneko lantalde teknikoak koordinatu eta gainbegiratuko ditu lan guztiak. Halaber, proiektuen bilakaera ebaluatzeaz arduratuko da.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, kulturuneko lantalde teknikoak txostena egin ondoren.

#### 9. Onuradunen betebeharrak:

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- a) Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkieten arauak betetzekoa.
- b) Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzekoa –bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli.
- c) Lana, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakustekoa, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakutsi arte.
- d) Proiektuaren publizitatean –Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere– “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” eslogana eta Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzekoa.
- e) “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” programak babesle edo laguntzailerik izanez gero, hautatutako proiektuak direla eta egiten den publizitatean horien logotipoak jarri beharko dira, babesle edo laguntzaile gisa ager daitezen.
- f) Hautatutako parte hartzaileek idatziz berretsi beharko dute onespena. Laguntza onartzen dela baieztatu ondoren, Montehermoso kulturuneak hautatutakoarekin hitz egingo du kontratua sinatu eta kontratua betetzeko berariazko klausulak ezartzeko.
- g) Proiektua 2010 eta 2011ko maiatza bitartean (barne) garatzea.
- h) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematea.
- i) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.
- j) Kostuak aurkeztutako aurrekontuaren eta Montehermoso kulturuneak adierazitako irizpideei jarraiki justifikatzea.

#### 10. Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Kultura Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da diru-laguntza bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

## IKERKETA

Deialdiaren helburua arte garaikideko, gehienez, hiru ikerketa proiekturen aukeraketa eta ekoizpena da. Gutxienez diru laguntza bat, Espainiako arte feministaren historiografia bat garatzearekin lotuta dauden ikerketei emango zaio.

### 1. Parte hartzaileak:

Zeinahi herritartasun duten egileek oro aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, banaka nahiz taldeka, inongo adin mugarik gabe. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

### 2. Proiektuak:

Ikerketa proiektu argitaragabe bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, gauzatze aldian dagoena edo laguntzak hartzen duen denbora tartean bukatzekoa dena.

Proiektuak hautatzeko, alderatu egingo dira aurkezten diren proposamenak, balioespen irizpide hauen aintzat hartuta:

- a) Ikerketaren interesa eta kalitatea.
- b) Ikerketaren egilearen edo egileen prestakuntza eta ibilbide profesionala.

Proiektuak hautatzeaz arduratzen den batzordeak finkatuko ditu atal horietako bakoitzean puntuak emateko irizpideak. Hiru ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaiok direnek eta bertan bizi direnek izango dute lehentasuna. Proiektuak ez badira behar horietara egokitzen, hautatze batzordeak eman gabe utzi ahal izango ditu diru-laguntzak, guztiak edo parte bat.

### 3. Laguntzak:

Ikerketa proiektua garatzeko gehienezko diru-kopurua 9.000 eurokoa izango da.

Kopuru honen barne ikertzailearen soldata eta proiektuaren garapenaren ondorioz sortutako gastuak sartuko dira:

- Lan materiala.
- Dokumentazioa eta argitalpenak eskuratzea.
- Ikertzailearen bidaia gastuak, dietak eta egonaldiak.
- Sortutako materialen erreproduzio eskubideak eta egile-eskubideak.

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gasteizko Udaleko Kultura Sailaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu kreditutik ordainduko dira. Hain zuzen ere, sail horren 2010. urteko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da deialdia.

Aipatutako diru-kopuruek zergak barne dituzte, eta guztia PFEZren atxikipenaren kalterik gabe, egokia bada egingo da. Kopuru hauen diru sarrera Gasteizko Udalaren administrazio prozeduraren arabera egingo dira

### 4. Epea:

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek helbide honetara bidali beharko dute eskabidea:

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea  
Cl. Fray Zacarías Martínez 2 – 01001 Vitoria-Gasteiz

Hauxe argi eta garbi adierazita:  
ARTEA ETA IKERKETA. MONTEHERMOSO 2010: IKERKETA

2010eko martxoaren 31n bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea. Entrega-epe bezala organismo ofizial batetan erregistratutakoa hartuko da, posta-bulegoa edo Montehermoso Kulturunea bera esaterako.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa postaz itzuliko da. Hautatutako proiektuen dosierrak eta dokumentazio osagarria, berriz, Montehermoso Kulturunearenak izatera pasatuko dira.

5. Aurkeztu beharreko agiriak:  
Eskabide orria, behar bezala beteta  
Proiektu egilearen edo egileen nortasun-agiriaren –edo baliokidearen– fotokopia  
Curriculuma (gehienez 4.000 karaktere)  
Aurreko lanen dosier laburra.

Proiektuaren dosier bikoiztua, hauexek biltzen dituenak:  
Izenburua eta proiektuaren laburpen txikia  
Aurreko garapena eta proiektuaren egungo egoera, 10.000 karaktere baino gehiagoko luzerarekin.  
Gauzatze egutegia  
Gutxi gorabeherako aurrekontu xehatua –finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztu beharko dira.  
Ikerketaren bibliografia zehatza.

Aurkezten diren eskabideetan eskatutako dokumenturen bat falta denean, hauek baliogabetuko dira.

6. Proiektuak hautatzeko batzordea:  
Prozesuko fase guztien gardentasuna bermatze aldera, gauzatuko diren proiektuak hautatzearen ardura bere gain hartuko duen bitariko batzorde bat aukeratu du Montehermoso kulturuneak.

Honako hauek osatuko dute hautatze batzordea:  
Lehendakaria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloko zinegotzi ordezkaria edo hark ordezeko izendatzen duena.  
Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako hiru aditu, kulturuneak hautatuak.  
Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat arituko da idazkari lanetan –iritzia eman ahal izango du, baina ez botorik

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

7.- Proiektuen zabalkundea:  
Lan prozesuen eta obra amaituen zabalkundea sustatzeko konpromisoa hartzen du bere gain Montehermoso kulturuneak –egileekin adostuko du horretarako modurik egokiena–

. Horrenbestez, erreprodukzio eskubidea eta komunikazio publikorako eskubidea laga beharko dizkiote artistek. Halaber, proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain. Proiektuen ondorioz sortzen den materiala erreproduzitu eta zabalkundea emateko baimena emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain hautatutako proiektuen egileek, 2010eko laguntza deialdiaren zabalkunderako ekintzak bideratzerik izan dadin, eta sortutako dokumentazio guztia kulturuneko artxiboan jasoko da. Hautatzen diren proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua gauzatzeaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten. Lagapen-aldia bi urtekoa izango da, ebazpenaren datatik kontatuta. Estatu osorako eta mundu osorako balioko du eskubide lagapenak. Montehermoso kulturuneak kontratu bat sinatuko du egileetako bakoitzarekin, eta bertan zehaztuko dira zerbitzuak eta harremanaren baldintzak.

#### 8. Gauzatzea:

Montehermoso kulturuneko lantalde teknikoak koordinatu eta gainbegiratu dituzte lan guztiak. Halaber, proiektuen bilakaera ebaluatzeaz arduratuko da.

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, kulturuneko lantalde teknikoak txostena egin ondoren.

#### 9. Onuradunen betebeharrak:

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- a) Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkieten arauak betetzeko.
- b) Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzeko –bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli.
- c) Lana, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakusteko, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakutsi arte.
- d) Proiektuaren publizitatean –Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere– “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” eslogana eta Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzeko.
- e) “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” programak babesle edo laguntzailerik izanez gero, hautatutako proiektuak direla eta egiten den publizitatean horien logotipoak jarri beharko dira, babesle edo laguntzaile gisa ager daitezen.
- f) Hautatutako parte hartzaileek idatziz berretsi beharko dute onespena. Laguntza onartzen dela baieztatu ondoren, Montehermoso kulturuneak hautatutakoarekin hitz egingo du kontratua sinatu eta kontratua betetzeko berariazko klausulak ezartzeko.
- g) Proiektua 2010 eta 2011ko maiatza bitartean (barne) garatzea.
- h) Aurkeztutako projektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematea.
- i) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.
- j) Kostuak aurkeztutako aurrekontuaren eta Montehermoso kulturuneak adierazitako irizpideei jarraiki justifikatzea.

#### 10. Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Kultura Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da diru-laguntza bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

## GIDOI ZINEMATOGRAFIKOA

Deialdiaren helburua gidoi zinematografiko bat egiteko proiektu baten aukeraketa da.

### 1. Parte hartzaileak:

Zeinahi herritartasun duten egileek oro aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak, banaka nahiz taldeka, inongo adin mugarik gabe. Talde gisa aurkeztuz gero, ordezkari bat izendatu beharko da.

### 2. Proiektuak:

Parte-hartzaileek argitaragabe erredakzio proiektu bat aurkeztu beharko dute, gauzatze aldian dagoena edo laguntzak hartzen duen denbora tartean bukatzekoa dena.

Proiektuak hautatzeko, alderatu egingo dira aurkezten diren proposamenak, balioespen irizpide hauen aintzat hartuta:

- a) Ikerketaren interesa eta kalitatea.
- b) Egilearen edo egileen prestakuntza eta ibilbide profesionala.

Proiektuak hautatzeaz arduratzen den batzordeak finkatuko ditu atal horietako bakoitzean puntuak emateko irizpideak. Hiru ataletan emandako puntuak batu ondoren puntuazio-berdinketarik egokituz gero, Gasteizko udalerrian jaioak direnek eta bertan bizi direnek izango dute lehentasuna. Proiektuak ez badira behar horietara egokitzen, hautatze batzordeak eman gabe utzi ahal izango ditu diru-laguntzak, guztiak edo parte bat.

### 3. Laguntzak:

Proiektua garatzeko gehienezko diru-kopurua 9.000 eurokoa izango da.

Kopuru honen barne ikertzailearen soldata eta proiektuaren garapenaren ondorioz sortutako gastuak sartuko dira:

- Lan materiala.
- Dokumentazioa eta argitalpenak eskuratzea.
- Bidaia gastuak, dietak eta egonaldiak.
- Sortutako materialen erreproduktzio eskubideak eta egile-eskubideak.

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gasteizko Udaleko Kultura Sailaren 2010eko ekitaldiko aurrekontu kreditutik ordainduko dira. Hain zuzen ere, sail horren 2010.urteko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da deialdia.

Aipatutako diru-kopuruek zergak barne dituzte, eta guztia PFEZren atxikipenaren kalterik gabe, egokia bada egingo da. Kopuru hauen diru sarrera Gasteizko Udalaren administrazio prozeduraren arabera egingo dira

#### 4. Epea:

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek helbide honetara bidali beharko dute eskabidea:

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea  
Cl. Fray Zacarías Martínez 2 – 01001 Vitoria-Gasteiz

Hauxe argi eta garbi adierazita:

ARTEA ETA IKERKETA. MONTEHERMOSO 2010: GIDOI ZINEMATOGRAFIKOA

2010eko martxoaren 31n bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea. Entrega-epe bezala organismo ofizial batetan erregistratutakoa hartuko da, posta-bulegoa edo Montehermoso Kulturunea bera esaterako.

Proiektuen hautaketa bukatu ondoren, aukeratu ez diren proiektuen dokumentazioa postaz itzuliko da. Hautatutako proiektuen dosierrak eta dokumentazio osagarria, berriz, Montehermoso Kulturunearenak izatera pasatuko dira.

#### 5. Aurkeztu beharreko agiriak:

Eskabide orria, behar bezala beteta

Proiektu egilearen edo egileen nortasun-agiriaren –edo baliokidearen– fotokopia  
Curriculuma (gehienez 4.000 karaktere)

Aurreko lanen dossier laburra.

Proiektuaren dossier bikoiztua hauexek biltzen dituen:

Izenburua eta proiektuaren laburpen txikia

Aurreko garapena eta proiektuaren egungo egoera, 10.000 karaktere baino gehiagoko luzerarekin.

Gauzatze egutegia

Gutxi gorabeherako aurrekontu xehatua –finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztu beharko dira.

Bibliografia/iturriak.

Aurkezten diren eskabideetan eskatutako dokumenturen bat falta denean, hauek baliogabetuko dira.

#### 6. Proiektuak hautatzeko batzordea:

Prozesuko fase guztien gardentasuna bermatze aldera, gauzatuko diren proiektuak hautatzearen ardura bere gain hartuko duen bitariko batzorde bat aukeratuko du Montehermoso kulturuneak.

Honako hauek osatuko dute hautatze batzordea:

Lehendakaria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloko zinegotzi ordezkaria edo hark ordezkari izendatzen duena.

Batzordekideak: Deialdiak hartzen dituen alorretako bi aditu, kulturuneak hautatuak.

Idazkaria: Montehermoso kulturuneko lantaldeko kide bat arituko da idazkari lanetan – iritzia eman ahal izango du, baina ez botorik

Ezingo da batzorde horrek hartutako erabakiaren kontra jo.

#### 7.- Proiektuen zabalkundea:

Lan prozesuen eta obra amaituen zabalkundea sustatzeko konpromisoa hartzen du bere gain Montehermoso kulturuneak –egileekin adostuko du horretarako modurik egokiena– . Horrenbestez, erreproduzio eskubidea eta komunikazio publikorako eskubidea laga beharko dizkiote artistek. Halaber, proiektuen komunikazio egokirako beharrezko den informazioa eta dokumentazioa emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain. Proiektuen ondorioz sortzen den materiala erreproduzitu eta zabalkundea emateko baimena emateko konpromisoa hartu beharko dute beren gain hautatutako proiektuen egileek, 2010eko laguntza deialdiaren zabalkunderako ekintzak bideratzerik izan dadin, eta sortutako dokumentazio guztia kulturuneko artxiboan jasoko da. Hautatzen diren proiektu eta obrak egileen jabetzakoak izango dira, eta eskubideak lagatzeak ez du berekin ekarriko, inolaz ere, inongo bateraezintasunik, egileek, proiektua gauzatzeaz batera, horiek erabiltzerik izan dezaten. Lagapen-aldia bi urtekoa izango da, ebazpenaren datatik kontatuta. Estatu osorako eta mundu osorako balioko du eskubide lagapenak. Montehermoso kulturuneak kontratu bat sinatuko du egileetako bakoitzarekin, eta bertan zehaztuko dira zerbitzuak eta harremanaren baldintzak.

#### 8. Gauzatzea:

Montehermoso kulturuneko lantalde teknikoak koordinatu eta gainbegiratu dituzte lan guztiak. Halaber, proiektuen bilakaera ebaluatzeaz arduratuko da. Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe laguntza kendu ahal izango da, kulturuneko lantalde teknikoak txostena egin ondoren.

#### 9. Onuradunen betebeharrak:

Deialdi honetan hautatutako pertsona edo taldeek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- a) Utzitako leku eta azpiegiturak erabiltzeari dagokionez Montehermoso kulturuneko arduradunek ematen dizkieten arauak betetzeko.
- b) Proiektua aurreikusitako epean eta baldintzetan gauzatzeko –bestela, uko egin beharko diote laguntzari, eta, diru-kopururen bat jaso badute, itzuli.
- c) Lana, ez osorik ez zatika, jendaurrean ez erakusteko, harik eta Montehermoso kulturuneak emandako jarraibideei jarraiki erakutsi arte.
- d) Proiektuaren publizitatean –Montehermoso kulturunean nahiz beste inon egiten delarik ere– “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” eslogana eta Gasteizko Udalaren eta Montehermoso kulturunearen logotipoak jartzeko.
- e) “Artea eta ikerketa. Montehermoso 2010” programak babesle edo laguntzailerik izanez gero, hautatutako proiektuak direla eta egiten den publizitatean horien logotipoak jarri beharko dira, babesle edo laguntzaile gisa ager daitezen.
- f) Hautatutako parte hartzaileek idatziz berretsi beharko dute onespena. Laguntza onartzen dela baieztatu ondoren, Montehermoso kulturuneak hautatutakoarekin hitz egingo du kontratua sinatu eta kontratua betetzeko berariazko klausulak ezartzeko.
- g) Proiektua 2010 eta 2011ko maiatza bitartean (barne) garatzea.
- h) Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematea.

- i) Jabetza intelektualaren eskubideen titularra izatea eta lana aurretik inoiz erakutsi gabea eta originala dela bermatzea.
- j) Kostuak Montehermoso kulturuneak adierazitako irizpideei jarraiki justifikatzea.

#### 10. Oinarriak interpretatu eta onartzea

Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Kultura Sailak argituko du.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da diru-laguntza bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.

Informazio gehiago 945 161 855 telefonoan edo [info@montehermoso.net](mailto:info@montehermoso.net) helbidean

**ARTE E INVESTIGACIÓN/ ARTEA ETA IKERKETA / ART &  
RESEARCH. MONTEHERMOSO 2010.**

**Impreso de solicitud / Eskabide-orria / Application form**

Nombre-Apellidos / Izen-deiturak / Name-Surname:

.....

D.N.I. / Nortasun-agiria / Passport Number:

.....

Dirección / Helbidea / Address:

.....

Población / Herria / City:

.....

Provincia / Lurraldea:

.....

Código Postal / Posta-kodea / ZIP Code:

.....

País / Herrialde / Country:

.....

Teléfono / Telefonoa / Telephone:

.....

E-mail / Helbide elektronikoa:

.....

Web:

.....

Título del proyecto / Proektuaren izenburua / Project Title:

.....

Apartado al que se presenta / Parte hartu nahi den atala / Apply to:

.....

DOCUMENTACIÓN PRESENTADA (Marcar con X) / AURKEZTUTAKO AGIRIA (marka itzazu X batez)/ REQUIRED DOCUMENTATION (Sign with X)

- Impreso de solicitud cumplimentado / Eskaera orria beteta / Filled Request form
- Fotocopia del D.N.I. / NANaren fotocopia / Passport photocopy
- Currículo / Curriculum / C.V.
- Dossier trabajos anteriores / Aurreko lanen dossier laburra / Previous work dossier
- Dossier del proyecto / Proiektuaren dossier / Project Dossier
- Documentación complementaria / Dokumentazio osagarria / Other documentation

Fecha / Eguna / Date:

.....

Firma/ Izenpea / Signature:

.....

*El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. nos proporciona serán incluidos en los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Oficina de Información Central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en la siguiente dirección: Plaza de España, s/n, 01001 Vitoria-Gasteiz, y en todas las Oficinas de Atención Ciudadana.*

*Ematen ari zaren xehetasunak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horien helburua. Zure ezkubideez balliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu-, jo ezazu udaletxeko Argibide Bulegora (Espainia plaza, z/g-01001 Vitoria-Gasteiz) edo Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara.*

*In compliance with Organic Law 15/1999 on Personal Data Protection of the 13th December, the Vitoria-Gasteiz City Council informs that the personal data provided will be stored in the Difusión Cultural file, aimed at the promotion of municipal cultural activities. The user can exercise his/her right to access, rectify, cancel or oppose to this treatment, by contacting the Central Information Office of the Vitoria-Gasteiz City Council in the following address: Plaza de España, s/n (01001) Vitoria-Gasteiz, or in any Citizen Information Office.*